



3. ERANSKINA.- KUDEAKETA-POLITIKA

Orozkoko Turismo Informazioko Bulegoaren misioa bisitariei arreta profesionala, hurbila eta erabilgarria eskaintzea da, helmugari buruzko informazio egiazkoa, eguneratua eta eskuragarria emanez, eta udalerriaren balio turistikoa modu antolatuan, jasangarrian eta bere ingurunean integratuta sustatzen lagunduz.

Zuzendaritzatik geure gain hartzen dugu **UNE 178510 arauaren** printzipioekin bat datorren kudeaketa-sistema garatzeko eta mantentzeko konpromisoa. Sistema hori etengabeko hobekuntzan eta **kudeaketaren, berrikuntzaren, teknologiaren, irisgarritasunaren eta jasangarritasunaren** ardatzetan oinarritzen da, erabiltzaileen eta gainerako alderdi interesdunen beharrei erantzuten dien zerbitzu eraginkor, fidagarri eta inklusiboa eskaintzeko.

Testuinguru horretan, Orozkoko Turismo Informazioko Bulegoak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Zerbitzuaren kalitatea eta etengabeko hobekuntza bermatzea;
- Legezko eta erregelamenduzko betekizunak, bai eta aplikatu beharreko beste konpromisoak ere, betetzea;
- Irisgarria, inklusiboa eta bisitarien gogobetetasunera bideratutako arreta sustatzea;
- Erabakiak hartzen laguntzeko, teknologia eta datuak modu erabilgarri eta seguruan erabiltzea bultzatzea;
- Berrikuntza hobekuntzarako tresna gisa sustatzea;
- Jarduera ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-jasangarritasunaren irizpideen arabera garatzea;
- Langileen prestakuntza, parte-hartzea eta inplikazioa erraztea;
- Orozkoko Udalarekiko eta LG Erekiko koordinazioa sustatzea, dagokien lankidetzaz-esparruetan;
- Politika hau erakundean lan egiten duten pertsona guztiei eta dagokien alderdi interesdunei jakinaraztea, haren ulermena, aplikazioa eta aldizkako berrikuspena bermatuz, testuinguruari eta zerbitzuaren helburuei egokituta jarrai dezan.

Orozkon, 2026ko ekainaren 23an

Gorbeialde LGA

Fdo: Iratxe Goikoetxea Aldekoa



GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
DESARROLLO RURAL